

## ILUNTASUNEN BAKARDADEA

Nerea Elorriaga

*Iurreta, 13 urte*

Saxofoi zahar bat bezala,  
nire bihotza,  
bere kaxan dago, hotz,  
iluntasuneko bakardadean.  
Iluntasuna;  
argia itzaltzean eratzen dena.  
Iluntasuna;  
eguzkia ezkutatzean eratzen dena.  
Iluntasuna;  
nire barrenean dagoena.  
Baina nire barrenean ez dago izarririk,  
ezta ilargirik ere.  
Nire barrenean ez dago eguzki izpi gorriarik,  
ezta kuku kantaririk ere.  
Barneko unibertso honetan:  
izarrak; pentsamenduak dira,  
beste pentsamendu batekin lurrintzen direnak.  
Planetak, ideiak dira  
zentzu gabekoak izaten direnak.  
Nire lorategian  
larrosak beren erlea noiz etorriko zain.  
Liliak eguzki izpiak noiz xurgatuko zain.  
Baina ez dago eguzkirik,  
iluntasuna dago, argirik eza.